

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure bezeroak eskolako langileak izanda, garrantzi handia ematen diogu harreman zuzena izateari. Elementu teknologikoa eskaintzen dugunez, harremana 24 ordukoa izan behar da, edozein momentutan gerta baitaiteke arazoren bat.

Arazoak gertatuz gero, eskola gurekin jar daiteke harremanetan bide ezberdinetatik. Webgunean mezu bat idatz diezaguke arazoa zein den esanez. Telefono zerbitzua ere badago, eta gure teknikoetako bat guardian egongo da ezbeharrei erantzuteko.

Udan eta oporraldi ezberdinetan, zerbitzu teknikoa mantentze lanetaz arituko da, edota behar diren hobekuntzak eginez.

Gainera, lokal fisikoa ere badaukagu eta bertaratu daitezke edozein zalantza argitu nahian.

